

- d) Departamentu barruko ekintzak bultzatzea.
- e) Aldundiaren berdintasun politiken programazioa, jarraipena eta ebaluazioa kudeatzea bere departamentuan.
- f) Kasuan kasuko departamentuan Berdintasunerako Foru Planari edo foru programei dagokien jarraipena egitea.
- g) Bere ardurapean jartzen zaion beste edozein eginkizun.

13. artikulua. Departamentu barruko unitateen osaera.

1. Departamentu barruko unitateek kide hauek izango dituzte:

- a) Departamentuko zuzendaritza nagusi guztietako pertsona bana gutxienez.
- b) Departamentuko idazkari teknikoa, Departamentu arteko Talde Teknikoko kide ere izango dena.

2. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Departamentu arteko Batzordeak baimena emanda, berdintasunaren gaitetako adituak joan ahal izango dira unitate horien bileretara.

14. artikulua. Departamentu barruko unitateen bileren araubidea.

1. Departamentu barruko unitateen bileretarako deiak idazkari teknikoak egingo ditu, eta berak ordezkatu du departamentua Departamentu arteko Talde Teknikoan.

2. Departamentu barruko unitateak gutxienez urtean hiru aldiz eta, horrez gain, beharrezkoa ikusten den guztietan elkartuko dira.

Amaierako xedapena. Indarrean sartzea.

Foru dekretu hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

Donostia, 2008ko irailaren 9a.

DIPUTATU NAGUSIA,
Markel Olano Arrese.

KIROLETAKO ETA KANPO EKINTZAKO
DEPARTAMENTUKO
FORU DIPUTATUA,
Iñaki Galdos Irazabal.

(5522)

(10119)

- d) El impulso de acciones intradepartamentales.
- e) La gestión dentro de su departamento de la programación, el seguimiento y evaluación de las políticas forales de igualdad.
- f) Realizar el seguimiento del Plan Foral o programas forales de igualdad en el departamento correspondiente.
- g) Cualesquiera otras que le sean encomendadas.

Artículo 13. Composición de las Unidades Intradepartamentales.

1. Las Unidades Intradepartamentales estarán integradas por:

- a) Una persona como mínimo de cada Dirección General de los distintos departamentos que componen la Diputación Foral.
- b) La Secretaria Técnica o Secretario Técnico del Departamento, que a su vez formará parte del Grupo Técnico Interdepartamental.

2. La Comisión Interdepartamental de Mujeres y Hombres podrá autorizar que personas expertas en materia de igualdad asistan a las reuniones de dichas unidades.

Artículo 14. Régimen de sesiones de las Unidades Intradepartamentales.

1. Las reuniones de las Unidades Intradepartamentales serán convocadas por la Secretaria Técnica o Secretario Técnico que será la persona que represente al departamento en el Grupo Técnico Interdepartamental.

2. Las Unidades Intradepartamentales se reunirán un mínimo de tres veces al año y siempre que se estime necesario.

Disposición final. Entrada en vigor.

El presente decreto foral entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.

Donostia-San Sebastián, a 9 de setiembre de 2008.

EL DIPUTADO GENERAL,
Markel Olano Arrese.

EL DIPUTADO FORAL
DEL DEPARTAMENTO DE
DEPORTES Y ACCION EXTERIOR,
Iñaki Galdos Irazabal.

(5522)

(10119)

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

2008ko irailaren 9ko 70/08 FORU DEKRETUA, Gipuzkoako Bizikletaren Kontseiluaren arautegia onartzekoa.

Giza ingurumenari buruz Nazio Batuek Stockholmen 1972an egin zuten gailurrean, mendebaldeko garapen ereduari egotzi zizkioten ingurumeneko inpaktu garrantzitsuenak. Eta gailur hartan baliabide ez berriztagarriei buruz egin ziren proposamenen eraginez, Lurraren Gailurra ospatu zen hogeitau urte geroago Río de Janeiro. Izan ere, hogeitau urte geroago bazuten oinarri zientifiko nahikorik ingurumeneko inpaktuen arazoiei buruz gogoeta egin eta erantzuteko eta jarduketa-lerro errealak eta eraginkorrak erabakitzeko. Nazioarteak Lurraren Gailurrean ekin zion beroketa globalaren inguruko erabakiak hartzeko prozesuari (Kiotoko 1997ko erabakiak), atzeman baitzuten negutegi efektuko gasen isurketa beroketaren eragile handienetakoa dela eta gas horiek ibilgailu motordunen errekuntzak sortzen

DIPUTACION FORAL DE GIPUZKOA

DECRETO FORAL 70/2008, de 9 de setiembre, por el que se aprueba el Reglamento del Consejo de la Bicicleta de Gipuzkoa.

La Cumbre de las Naciones Unidas sobre Medio Ambiente Humano celebrada en Estocolmo en 1972 responsabilizó al modelo occidental de desarrollo de los más importantes impactos ambientales. Las propuestas sobre los recursos no renovables desembocaban veinte años más tarde en la Cumbre de la Tierra celebrada en Río de Janeiro donde se disponía de las bases científicas suficientes para preguntarse y responder sobre las causas y las líneas reales y efectivas de actuación. El proceso de adopción de acuerdos internacionales relacionados con el calentamiento global, acuerdos de Kioto de 1997, se inició en esta cumbre, detectando que uno de los factores fundamentales que incidían en dicho calentamiento era la emisión de gases de efecto invernadero generados en su mayor parte por la combustión

dituela neurri handi batean. Horrela, pixkanaka krisian sartu zen bereziki ibilgailuan oinarritutako mugikortasunaren eredia, ibilgailuak erruz xurgatzen eta kaltetzen dituen naturabaliabide ez berriztagarriak.

Hori dela eta, iraunkortasunaren kontzeptuak beste erreferentzia esparru bat lantzea eskatzen digu, beharturik bai-kaude garraioa eta mugikortasuna beste ikuspuntu batetik berraztertu eta positiboki diskriminatzera ingurune natural eta sozialari arazo gutxien sortzen dizkieten garraioabideak, hau da, bizikletaz eta oinez ibiltzea. Baina aldaketa hori egin dezagun, pedagogia aktiboko estrategiak landu behar ditugu eta herritarren nahiz erabakiguneak diren eragile guztien partaidetza bideak aktibatu behar ditugu. Ohiturak eta balioak baitira aldatu beharrekoak.

Testuinguru horretan, erabakiak hartzen direnean informazioa emateari eta herritarrek parte hartzeari buruz eta ingurumenaren alorrean justiziarako sarbidea izateari buruz Nazio Batuen Europarako Batzorde Ekonomikoak 1998ko urtean sinatu zuen hitzarmenaren arabera (Aarhus-eko hitzarmena), Europako Batasuneko estatu kideek behar besteko prozedurak ezarri behar dituzte herritarrek eskura ahal ditzaten ingurumenari buruzko informazio garrantzitsuenak, ingurumen gaitako erabakiak hartzeko prozesuetan parte ahal dezaten eta, eskubide horiek ukatzen zaizkienean, justiziara jotzeko aukera izan dezaten.

Zentzu horretan, ingurumenari eta garapenari buruzko Rio de Janeiroko adierazpeneko hamargarren printzipioaren arabera, ingurumeneko gaien kudeaketa alorrean herritar guztien partaidetza eskuratu behar da, eta partaidetza aktiboaren, egiazkoaren eta eraginkorraren aldeko planteamendu demokratikoak indartu behar dira, erabakiak legítimoak eta praktikan eraginkor-rrak izango direla bermatzeko. Izan ere, testuinguru horretan hartzen du dagokion garrantzia gizarte eragile guztien erantzukizun partekatua eta, aldi berean, berezitetuei buruzko printzipioak.

Printzipio horiek guztiak jasota daude bai gure lege antolamenduan eta baita Konstituzioaren aurreikuspenetan ere, ingurumenaren alorrean informazio izateko, parte hartzeko eta justiziarako sarbidea izateko eskubideak arautzen dituen 2006ko uztailaren 18ko 27/06 Legearen bidez. Beste aldetik, Autonomia Estatutuak bere 9.2 artikuluan xedatzen du euskal botere publikoek izan behar dutela Euskal Autonomia Erkidegoko bizitza politikoan, ekonomikoan, kulturean eta sozialean parte hartzea bermatzen dietenak herritar guztiei.

Azkenik, orain arte azaldutako guztiarekin bat etorritz, Gipuzkoako Bizikletaren Kontseilua aurreikusi zuen Gipuzkoako Lurralde Historikoko Bizikleta Bideei buruzko 2007ko urtarrilaren 24ko 1/07 Foru Arauak 82. artikuluan. Foru arau horren arabera, Kontseilua bizikletaren eta bizikletako mugikortasunaren alorrean kontsulta eta aholkularitzako organo gorena behar du izan Lurralde Historikoan, benetako partaidetza-organoa izan behar du, bere eskumeneko gaietan eraginkortasuna erakutsi behar du eta, Kontseiluak berak egokien deritzon formula eragileen bidez, zabaltasunez jokatu eta Gipuzkoako gizartean dauden ikusmolde eta joera guztiak eraman behar ditu bere baitara. Dagokion lan esparruaren arabera, Gipuzkoako Bizikletaren Estrategia landu, garatu eta ebaluatuko du Kontseiluak, hau da, bizikletaren eta bizikletako mugikortasunaren gaitan Gipuzkoako Lurralde Historikoari begira erabaki bide diren politika eta jardute-ildo guztiak landu, garatu eta ebaluatuko ditu. Horregatik bada, 2007ko urtarrilaren 24ko 1/07 Foru Arauan xedatutakoa betez, Gipuzkoako Bizikletaren Kontseiluaren arategi organikoa eta funtzionala erabaki behar da.

Horiek horrela, Garapen Iraunkorreko Departamentuko foru diputatuaren proposamenez, gaurko bileran Diputatuen Kontseiluak alde aurretik eztabaidatu eta onartu ondoren,

tion de los vehículos a motor. Así, progresivamente, el modelo de movilidad hegemónico basado en el coche entraba en crisis, entre otros motivos, por la cantidad de recursos naturales no renovables que consume y degrada.

De esta forma, el concepto de sostenibilidad implica la elaboración de un marco de referencia que obligue a reexaminar desde una nueva óptica el transporte y la movilidad procurando una discriminación positiva hacia aquellos medios de transporte que, como la bicicleta o la marcha a pie, impliquen menos problemas en relación al medio natural y social. Pero este cambio exige adoptar estrategias de pedagogía activa y activar los canales de participación de la ciudadanía y de todos aquellos agentes que sean centro de decisión. Los hábitos y los valores han de cambiar.

En este contexto el Convenio de la Comisión Económica para Europa de Naciones Unidas sobre Acceso a la Información, la Participación del Público en la toma de decisiones y el Acceso a la Justicia en materia de medio ambiente de 1998 (Convenio de Aarhus) obliga a los estados miembros de la Unión Europea a articular procedimientos por los cuales los ciudadanos puedan tener acceso a la información medioambiental relevante, estén legitimados para participar en los procesos de toma de decisiones de carácter ambiental, y puedan acceder a la justicia cuando tales derechos les sean negados.

En el mismo sentido, el principio décimo de la declaración de Río de Janeiro sobre Medio Ambiente y Desarrollo considera que la gestión de las cuestiones ambientales contará con la participación de todos los ciudadanos avanzando en planteamientos democráticos que postulan la participación activa, real y efectiva de la sociedad para legitimar las decisiones y garantizar su eficacia en la práctica. En este marco es donde adopta su máximo exponente el principio de las responsabilidades compartidas pero diferenciadas de todos los agentes de la sociedad.

Estos principios son recogidos en nuestro ordenamiento, además de por las previsiones constitucionales, por la Ley 27/2006, de 18 de julio, por la que se regulan los derechos de acceso a la información, de participación pública y de acceso a la justicia en materia de medio ambiente. Asimismo, el Estatuto de Autonomía en su artículo 9.2 dispone que sean los poderes públicos vascos los que faciliten la participación de todos los ciudadanos en la vida política, económica, cultural y social del País Vasco.

Finalmente, en coherencia con todo lo expuesto, el artículo 82 de la Norma Foral 1/2007, de 24 de enero, de Vías Ciclistas del Territorio Histórico de Gipuzkoa establece la figura del Consejo de la Bicicleta de Gipuzkoa, que se concibe como el máximo órgano consultivo y asesor en materia de bicicleta y movilidad ciclista en el Territorio Histórico, planteándose como un órgano efectivo de participación, con un papel activo en la materia de su competencia y con un carácter abierto a la integración de todas las percepciones y sensibilidades existentes en el seno de la sociedad guipuzcoana, a través de las fórmulas operativas que mejor estime el referido Consejo. El ámbito de su actuación quedará circunscrito a la elaboración, desarrollo y evaluación de la Estrategia de la Bicicleta de Gipuzkoa, entendida ésta como el conjunto de políticas y líneas de actuación que en materia de bicicleta y movilidad ciclista sean adoptadas para el Territorio Histórico de Gipuzkoa. Procede por tanto, en atención a lo dispuesto en la citada Norma Foral 1/2007, de 24 de enero, desarrollar el reglamento orgánico y funcional del Consejo de la Bicicleta de Gipuzkoa.

En su virtud, a propuesta del Diputado Foral de Desarrollo Sostenible, y previa deliberación y aprobación del Consejo de Diputados, en sesión del día de la fecha,

XEDATZEN DUT

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Xedea.

Gipuzkoako Bizikletaren Kontseiluaren arautegia onartzen da foru dekretu honetan, Gipuzkoako Lurralde Historikoko bizikleta-bideei buruzko 2007ko urtarrilaren 24ko 1/07 Foru Arauko 82. artikuluekin bat etorriz.

2. artikulua. Atxikipena.

Ondorio administratiboetarako, bizikleta bideei buruzko eskumenak dauzkan Foru Aldundiko departamentuari atxikitzen zaio Bizikletaren Kontseilua. Bizikletaren Kontseiluak bere jarduna burutu, bere helburuak bete eta funtzionamendu egokia izan dezan, departamentu horrek behar besteko baliabide tekniko eta administratibo eskuratu beharko ditu. Halaber, bere bileretarako tokia ere utzi beharko dio.

3. artikulua. Izaera juridikoa.

Bere ezaugarrien arabera, Gipuzkoako Bizikletaren Kontseilua kontsultak egiteko, aholkuak emateko, itunak egiteko eta parte hartzeko organoa da bizikletarekin eta bizikletako mugikortasunarekin lotura duten Gipuzkoako administrazioentzat, erakundeentzat eta gizarte nahiz enpresa eragileentzat.

Organo kolegiatua da Kontseilua, eta arautegi honek xedatzen duenez gain, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 1992ko azaroaren 26ko 30/92 Legeak II. Tituluko II. Kapituluan ezarritakoaren arabera zuzenduko du bere burua.

4. artikulua. Kontseiluaren jardute esparrua.

Bere jardute esparruaren arabera, Bizikletaren Estrategia landu, garatu eta ebaluatzea mugatuko da Bizikletaren Kontseiluaren. Estrategia horren xedea, hain zuzen ere, Gipuzkoan bizikletaren erabilera eta bizikleta bideak sustatzeko jardute politikak eta ildoak definitzea da.

5. artikulua. Eginkizunak.

1. Gipuzkoako Bizikletaren Kontseiluaren eginkizun orokorrak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko bizikleta-bideei buruzko 2007ko urtarrilaren 24ko 1/07 Foru Arauko 82. artikuluan ezarritakoak dira.

2. Aurrekoetz gain, Gipuzkoako Bizikletaren Kontseiluak beste eginkizun hauek izango ditu, dagokion jardute eremuaren barruan:

a) Proposamenak egitea bizikletako mugikortasunarekin zerikusirik duten arautegi aurreproiektuei, planei eta proiektuei buruz.

b) Bizikletako mugikortasunaren gaian txostenak egitea eta proposamenak lantzea bai bere ekimenez, eta baita foru erakundeek eta organoek nahiz beste administrazio publikoek Kontseiluaren Lehendakartzari egindako eskariz ere.

c) Bizikletako mugikortasunari buruz Gipuzkoako Foru Aldundiak presta ditzakeen politikez, programez, proiektuez, azterketez, jardute ildoez eta irizpideez bere txostenak egitea. Horretarako bere partaidetza benetakoa izan dadin, informazio hori behar besteko aurrerapenarekin emango zaio Kontseiluari.

d) Lehendakartzak proposatzen dizkion planei eta programei buruz aholkatzea, plan eta programa horiek bizikletako mugikortasunean izan dezaketen eragina kontuan hartuta.

DISPONGO

DISPOSICIONES GENERALES

Artículo 1. Objeto.

De conformidad con lo establecido en el artículo 82 de la Norma Foral 1/2007, de 24 de enero, de Vías Ciclistas del Territorio Histórico de Gipuzkoa, se aprueba el Reglamento regulador del Consejo de la Bicicleta de Gipuzkoa.

Artículo 2. Adscripción.

El Consejo de la Bicicleta quedará adscrito a efectos administrativos al departamento de la Diputación Foral que tenga asignadas las competencias en materia de vías ciclistas, el cual tendrá obligación de dotarse de los medios técnicos y económicos necesarios para garantizar la actividad y el cumplimiento de los fines y buena marcha del Consejo de la Bicicleta, así como de proporcionar las dependencias para el desarrollo de sus sesiones.

Artículo 3. Naturaleza jurídica.

El Consejo de la Bicicleta de Gipuzkoa se caracteriza por ser un órgano consultivo, asesor y de concertación y participación de las administraciones, instituciones, agentes sociales y empresariales vinculados a la bicicleta y a la movilidad ciclista en Gipuzkoa.

El Consejo es un órgano colegiado y se registrará, además de lo dispuesto en el presente reglamento, por lo establecido en el en el Título II Capítulo II de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Artículo 4. Ámbito de actuación del Consejo.

El ámbito de actuación del Consejo de la Bicicleta quedará circunscrito a la elaboración, desarrollo y evaluación de la Estrategia de la Bicicleta de Gipuzkoa, entendida ésta como elemento definitorio de las políticas y líneas de actuación que tienen como finalidad la potenciación del uso de la bicicleta y de las vías ciclistas de Gipuzkoa.

Artículo 5. Funciones.

1. Son funciones genéricas del Consejo de la Bicicleta de Gipuzkoa las previstas en el artículo 82 de la Norma Foral 1/2007, de 24 de enero, de Vías Ciclistas del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

2. Así mismo, dentro del ámbito de actuación referido, corresponden al Consejo de la Bicicleta de Gipuzkoa las siguientes funciones específicas:

a) Emitir propuestas sobre anteproyectos normativos, planes y proyectos con incidencia en materia de movilidad ciclista.

b) Emitir informes y elaborar propuestas en materia de movilidad ciclista, a iniciativa propia, a petición de las instituciones y órganos forales o de otras administraciones públicas que lo soliciten a la Presidencia del Consejo.

c) Emitir informes sobre cuantas políticas, programas, proyectos, estudios, líneas de actuación o directrices elabore la Diputación Foral de Gipuzkoa en materias relacionadas con la movilidad ciclista, para lo cual deberá disponer de tal información con la antelación suficiente que garantice la participación efectiva del Consejo.

d) Asesorar sobre planes y programas de ámbito territorial que la Presidencia estime proponer al Consejo, atendiendo a la relevancia de su incidencia sobre la movilidad ciclista.

e) Egoki deritzon neurriak proposatzea garapen iraunkorri buruz, ingurumenari buruz, partaidetzari buruz eta bizikletako mugikortasunari buruz nazioartean eta European dauden erabakiak hobeto betetzeko, eta, orobat, egun dauden arautegiak eta programak berrikustea eta arautegi eta programa horiek eraginkorragoak izan daitezen hobekuntzak proposatzea.

f) Hezkuntzako neurriak proposatzea, bizikletaren erabilerari buruz eta bizikleta erabiltzeak daukan balioei buruz Gipuzkoako gizartea informatzeko, jakinaren gainean jartzeko, bideratzeko eta sentsibilizatzeko.

g) Bizikletako mugikortasunari buruzko azterketak proposatzea.

h) Herritarren partaidetza sustatzea, erantzukizun partekatuen printzipioa eraginkor bilakatzen laguntzea eta bizikletako mugikortasunaren gaian gizarte osoaren atxikimendua bilatzea.

i) Egoki deritzon gomendioak egitea bere eskumenen barruan.

j) Egoki deritzon eginkizunak eskuordetzea Kontseiluko lan batzordeei.

3. Gipuzkoako Bizikletaren Kontseiluak eginen dituen proposamenek gomendio indarra izango dute foru gobernuko organoentzat eta bizikletako mugikortasunaren gaiarekin zerikusirik dute beste administrazio publiko, erakunde eta elkarteentzat.

4. Bizikletaren Kontseiluari jakitera emango zaizkio, batetik, bizikleta bideei buruz nahiz bizikletaren erabilerari buruz departamentu eskudunak landu eta har ditzakeen araugintza, plangintza, burutzapen eta sustapeneko erabaki guztiak, eta, bestetik, gaiari buruz departamentu eskudun horrek presta ditzakeen politika, programa, proiektu, azterketa, jardute ildo eta irizpide guztiak. Ondorio horietarako, departamentu berak erabakiko du zer informazio den garrantzitsua eta nahitaezkoa Kontseiluaren funtzionamendu egokirako.

II. KAPITULUA

GIPUZKOAKO BIZIKLETAREN KONTSEILUAREN OSAERA ETA ANTOLAMENDUA

6. artikulua. Osaera.

Hauek izango dira Bizikletaren Kontseilua osatuko dutenak:

1. Lehendakaria: Foru Aldundian bizikleta bideen alorreko eskumenak dauzkan departamentuko foru diputatua izango da Gipuzkoako Bizikletaren Kontseiluko lehendakaria. Bere eginkizunak lehendakariordearen esku utzi ditzake.

2. Lehendakariordea: Gaiaren eskumena duen zuzendaritza nagusiko titularra izango da, edo berak bere orde zuzendatutakoa. Lehendakaria ez badago, gaixorik baldin badago, kargua hutsik baldin badago edo legezko beste arrazoiren bat gertatzen bada, lehendakariordea arituko da lehendakariaren orde.

3. Bokalak. Hasiera batean, bokal hauek izendatuko dira:

a) Bokal bat Gipuzkoako Batzar Nagusietan ordezkari den talde politiko bakoitzaren izenean.

e) Proponer las medidas que estime oportunas para mejorar el cumplimiento de los acuerdos internacionales y europeos en materia de desarrollo sostenible, medio ambiente, participación y movilidad ciclista, revisando las normativas y programas en vigor, y proponiendo las consiguientes mejoras para su mayor efectividad.

f) Proponer medidas de educación que tengan como finalidad informar, comunicar, orientar y sensibilizar a la sociedad guipuzcoana en el uso de la bicicleta y los valores que representa de forma integral.

g) Proponer estudios relativos a la movilidad ciclista.

h) Promover la participación ciudadana y coadyuvar a la efectividad del principio de las responsabilidades compartidas, buscando la implicación de toda la sociedad en materia de movilidad ciclista.

i) Formular cuantas recomendaciones estime oportunas en el ámbito de su competencia.

j) Delegar en las Comisiones de Trabajo, en el seno del Consejo, cuantas funciones estime oportunas.

3. Las propuestas elaboradas por el Consejo de la Bicicleta de Gipuzkoa tendrán la consideración de recomendaciones para los órganos del gobierno foral y el resto de administraciones públicas, entes u organismos implicados en materia de movilidad ciclista.

4. El Consejo de la Bicicleta tendrá conocimiento de cuantos instrumentos normativos, de planeamiento, ejecución y promoción desarrolle o establezca el departamento competente en materia de vías ciclistas y bicicleta en relación a las mismas, así como de las políticas, programas, proyectos, estudios, líneas de actuación y directrices que igualmente elabore sobre tal materia. A tal efecto, el referido departamento será quien determine la información relevante e imprescindible para la buena marcha del Consejo.

CAPITULO II

COMPOSICION Y ORGANIZACION DEL CONSEJO DE LA BICICLETA DE GIPUZKOA

Artículo 6. Composición.

El Consejo de la Bicicleta estará formado por las siguientes personas:

1. Presidente o Presidenta: El Diputado o Diputada Foral del Departamento de la Diputación Foral que tenga asignadas las competencias en materia de vías ciclistas ostentará la Presidencia del Consejo de la Bicicleta de Gipuzkoa, pudiendo delegar sus funciones en la Vicepresidencia.

2. Vicepresidente o Vicepresidenta: La Vicepresidencia será ejercida por la persona titular de la Dirección General competente en la materia, o persona en quien delegue, quien sustituirá al Presidente o Presidenta en los supuestos de ausencia, vacante, enfermedad u otra causa legal.

3. Vocales: Inicialmente cada vocalía estará representada por las siguientes personas:

a) Un o una vocal en representación de cada grupo político que tenga representación en las Juntas Generales de Gipuzkoa.

b) Bokal bat errepide, garraio eta kirol gaietan eskumena duen Gipuzkoako Foru Aldundiko departamentu bakoitzaren izenean.

c) Bokal bat garraio alorrean eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailaren izenean.

d) Bederatzi bokal Gipuzkoako eskualdeen izenean, garapen agentziek, mankomunitateek eta antzeko erakundeek izendatuak.

e) Bi bokal bizikletako mugikortasunaren gaian ibilbide aintzat hartua egin duten udalerrien izenean.

f) Bokal bat Donostiako Bizikleta Behatokiaren izenean.

g) Bi bokal ordezkari gehien eta beren jardunaren barruan bizikletako mugikortasuna sartzan duten sindikatuen izenean.

h) Bokal bat Euskal Herriko Unibertsitateko Batubide proiektuaren izenean.

i) Hiru bokal bizikletako hiri mugikortasunarekin lotura duten irabazi asmorik gabeko elkarten izenean.

j) Bokal bat oinezkoen mugikortasunarekin lotura duten irabazi asmorik gabeko elkarten izenean.

k) Bokal bat mugikortasun murriztuko pertsonen ordezkari diren elkarten izenean.

l) Bokal bat ekologiarekin eta ingurumena zaintzearekin lotura duten irabazi asmorik gabeko elkarten izenean.

4. Idazkaria: Bizikleta bideen alorreko zerbitzu teknikoaren arduraduna izango da, edo lehendakariak izendatutako area bereko beste teknikairenean.

5. Bizikletako mugikortasuneko arean plangintzako, kudeaketako edo sustapeneko ardurak dituzten teknikariak ere Kontseiluko kideak izango dira, hitzarekin baina botorik gabe.

7. artikulua. *Izendapenak eta kargugabetzeak.*

1. Bizikleta bideen gaian eskumena duen foru departamentuak izendatuko ditu Kontseiluko bokal titularrak, jarraian ematen diren arauen arabera:

a) Ordezkaritza politikoa: Dagozkien taldeek proposatuak.

b) Administrazioaren ordezkariak: Dagozkien departamentuek edo zuzendaritzek proposatuak.

c) Udalerrien ordezkariak: Udalerrien Euskal Federazioak (EUDEL) proposatuak.

d) Donostiako Bizikleta Behatokiaren ordezkaria: Donostiako Udalak proposatua.

e) Eskualdeen ordezkariak: Izendatutako eskualde erakundeek proposatuak.

f) Erakundeen, elkarten eta gainerako entitateen ordezkariak: Beraiek proposatuak.

g) Ordezkaritza pertsonalak Lehendakariaren eta Batzarren erabakimenera jarriko dira, organo horietan erabakiko baita proposamena onartu edo ez onartzea.

h) Adituak organo eskumendunak izendatuko ditu zuzenean, nahiz eta izaera bereko beste pertsona batzuk ere onartuak izan daitezkeen Kontseiluko Batzarren proposamenez.

b) Un o una vocal en representación de cada uno de los departamentos de la Diputación Foral de Gipuzkoa con competencia en materia de carreteras, transportes y deportes.

c) Un o una vocal en representación del departamento del Gobierno Vasco con competencia en materia de transportes.

d) Nueve vocales en representación de los ámbitos comarcales del territorio, que se designarán entre las agencias de desarrollo, mancomunidades o entidades similares.

e) Dos vocales en representación de aquellos municipios de reconocida trayectoria en materia de movilidad ciclista.

f) Un o una vocal en representación del Observatorio de la Bicicleta Donostia-San Sebastián.

g) Dos vocales en representación de los sindicatos más representativos con actividad en materia de movilidad ciclista.

h) Un o una vocal en representación del proyecto Batubide, de la Universidad del País Vasco.

i) Tres vocales en representación de aquellas asociaciones sin ánimo de lucro vinculadas a la movilidad ciclista urbana.

j) Un o una vocal en representación de aquellas asociaciones sin ánimo de lucro vinculadas a la movilidad peatonal.

k) Un o una vocal en representación de las asociaciones representativas de las personas con movilidad reducida.

l) Un o una vocal en representación de aquellas asociaciones sin ánimo de lucro vinculadas a la ecología o la preservación del medio natural.

4. Secretario o Secretaria: La Secretaría será ejercida por la persona responsable de los servicios técnicos de las vías ciclista o aquél otro técnico o técnica del área que le sustituya por designación de la Presidencia.

5. Los técnicos y técnicas que compongan el área de movilidad ciclista con responsabilidad en la planificación, gestión o promoción, también serán miembros del Consejo, con voz pero sin voto.

Artículo 7. Nombramiento y cese.

1. Los y las vocales titulares del Consejo serán nombrados por el departamento foral competente en materia de vías ciclistas a tenor de lo dispuesto en los siguientes apartados:

a) Los y las representantes políticos a propuesta de sus grupos.

b) Los y las representantes de la administración a propuesta de sus departamentos o direcciones.

c) Los y las representantes de los municipios a propuesta de la Federación Vasca de Municipios EUDEL.

d) El o la representante del Observatorio de la Bicicleta de Donostia-San Sebastián, a propuesta del Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián.

e) Los y las representantes de las comarcas a propuesta de las entidades comarcales designadas.

f) Los y las representantes de organismos o asociaciones y resto de entidades, a propuesta de los mismos.

g) Las representaciones personales serán sometidas a la consideración de la Presidencia y el Pleno, admitiendo o no la propuesta.

h) Los expertos o expertas serán designados de forma directa por el órgano competente, siendo posible la consideración de otras personas de igual consideración a propuesta del Pleno.

2. Bokalak kargugabetuak izan daitezke arrazoi hauengatik:

- a) Bokalak espresuki bere karguari uko egin diolako.
- b) Bere eginkizunak betetzeko bokala ezgaiturik dagoelako.
- c) Bokal beren karguaren arrazoibidez denak, dagokion kargua galdu duelako.
- d) Bokalak ordezkatzeko duen erakundeak kargugabetzea proposatu duelako.

3. Izendapenak egiteko erabili den prozeduraren arabera beteko dira bokal-postu hutsak ere.

8. artikulua. Bokal kopurua gehitzea.

1. Kontseiluko bokalen kopurua gehitu ahal da, baldin eta Bizikletaren Estrategiaren garapenarentzat kopurua gehitzea beharrezkoa baldin bada edo Kontseiluak berak gehitzea erabakitzen badu.

2. Kontseiluko kide izateko, irizpide hauetatik bateren bat betetzen den hartuko da kontuan:

a) Bere dedikazioa, inplikazioa edo jarduera dela eta, bizikletako mugikortasunarekin lotura zuzena duela frogatu duen pertsona fisikoa edo juridikoa izatea.

b) Bizikletaren ingurumarian esperientzia aitortua duen pertsona fisikoa edo juridikoa izatea.

c) Bizikletako mugikortasunaren gaian interes berezia erakutsi duen pertsona fisikoa edo juridikoa izatea.

3. Proposamen berriak lehendakariari igorriko zaizkio, eta hark erabaki du bokal berrien izendapena onartu edo ez onartu.

9. artikulua. Ordainsariak.

Bizikletaren Kontseiluko kide izateak ez du kide-lanengatik ordainsaririk jasotzeko eskubiderik sortzen.

III. KAPITULUA

KONTSEILUA OSATZEN DUTEN ORGANOEEN ETA PERTSONEN EGINKIZUNAK, ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

10. artikulua. Organoak.

Hauek dira Kontseiluko organoak:

- Lehendakaritza.
- Batzarra.

11. artikulua. Lehendakaritzaren eginkizunak.

Kontseiluko lehendakariaren eginkizunak dira:

- a) Kontseilua ordezkatzeko.
- b) Bilerara deitzea eta bilerako gai zerrenda erabakitzea.
- c) Bilerak zuzentzea, eztabaidak moderatzea, deliberazioak bideratzea eta bilerak etetea, horretarako arrazoi nahikoa dagoenean.
- d) Kontseiluaren helburuak betetzen direla zaintzea.
- e) Batzarrean hartutako erabakiak beteko direla bermatzea.

2. Los y las vocales serán cesados por las siguientes causas:

- a) Renuncia expresa.
- b) Incapacidad o inhabilitación para el desempeño de sus funciones.
- c) Cuando los miembros ostenten la titularidad por razón de su cargo, al perder tal condición.
- d) Cuando la organización a quien represente así lo proponga.

3. Las vacantes serán provistas siguiendo el mismo procedimiento utilizado para los nombramientos.

Artículo 8. Ampliación de las vocalías.

1. Podrá ampliarse el número de vocales que integran el Consejo en función de las necesidades que vaya marcando el desarrollo de la Estrategia de la Bicicleta o cuando el Consejo así lo estime oportuno.

2. A los efectos de ingresar en el Consejo como miembro vocal del mismo, se atenderá al cumplimiento de alguno de los siguientes criterios:

a) Aquellas personas físicas o jurídicas que por su especial dedicación, implicación o actividad demuestren un vínculo directo con la movilidad ciclista.

b) Aquellas personas físicas o jurídicas de reconocida experiencia en materia ciclista.

c) Aquellas personas físicas o jurídicas que manifiesten un interés directo en materia de movilidad ciclista.

3. Las nuevas propuestas se harán llegar a la Presidencia, siendo ésta quien resuelva la conveniencia de la estimación o desestimación de las nuevas vocalías.

Artículo 9. Remuneración.

La condición de miembro integrante del Consejo de la Bicicleta no generará derecho de remuneración.

CAPITULO III

FUNCIONES, DERECHOS Y DEBERES DE LOS ORGANOS Y PERSONAS INTEGRANTES DEL CONSEJO

Artículo 10. Organos.

Los órganos del Consejo son:

- La Presidencia.
- El Pleno.

Artículo 11. Funciones de la Presidencia.

Corresponde al Presidente o Presidenta del Consejo:

- a) Representar al Consejo.
- b) Convocar y establecer el orden del día de las reuniones.
- c) Presidir las reuniones, moderar los debates, orientar las deliberaciones y suspender las sesiones cuando existan causa suficiente para ello.
- d) Velar por el cumplimiento de los fines del Consejo.
- e) Garantizar el cumplimiento de los acuerdos adoptados en pleno.

f) Bere eskumen esparruari dagozkion legeria eta iraunkortasunaren printzipioak betetzen direla zaintzea.

g) Kontseiluko kide guztien informazio eta partaidetza eskubideak bermatzea.

h) Kontseiluaren Batzarrak onartutako erabakiak, gomen-dioak, eskaerak eta jarduketak igortzea bizikleta bideen gaineko eskumenak dituen organoari eta, bereziki, bizikleta bideen alorreko zerbitzu teknikoen arduradunari.

i) Bermatzea Kontseiluaren batzar guztietan parte hartuko duela, bere kabuz edo bere eginkizunak lehenakiordeari eskuordetuz.

j) Kalitateko botoa bereganatzea, eta berdinketa kasuetan boto horretaz baliatuz erabakitzea.

k) Egoki deritzon kanpoko laguntza teknikoa eskatzea.

12. artikulua. Kontseiluaren Batzarraren eginkizunak.

Batzarra da Gipuzkoako Bizikletaren Kontseiluaren organo erabakitzaile gorena eta, horregatik bada, eginkizun hauek izango ditu:

a) Kontseiluaren lan programa ezartzea eta lehenasunaz zer landu erabakitzea.

b) Bizikleta bideen gaian eskumena duen foru departamentuarekiko informazioa arina izango dela bermatzea eta foru organo horri aholkatzea bere eskumenen barruan.

c) Ezagutzea eta aztertzea bere eginkizunekin zerikusia duten dokumentuak, txostenak, azterketak, irizpideak eta jarduketak izango dituztenak.

d) Bere eginkizunak betetzeko egoki deritzon informazioa eskatzea.

e) Informazio ahalik eta onena jasotzeko, adituei eta izen handiko pertsonari eskatzea parte har dezaten bai Batzarrean bai lan batzordeetan.

f) Azaltzen dizkieten gai guztiei buruz bere iritzia ematea.

g) Gai bereziak aztertu behar direnean, lan edo informazio batzordeak sortzea, batzorde horien osara egoki deritzon bezala erabakiz eta bere eskumenen esparrutik atera gabe, eta, orobat, aukera ematea batzorde horietan sar daitezkeen beren ibilbide bereziarengatik eta aztertu beharreko gaiekin duten loturarengatik lanaren kalitatea areagotzen lagundu dezaketen taldeak, elkarteak eta pertsonak.

13. artikulua. Idazkariaren eginkizunak.

1. Lehendakariaren zuzendaritzapean, idazkariak eginkizun hauek izango ditu:

a) Kontseilua aholkatzea eta laguntzea.

b) Batzartzeko deiak egitea, eta deiarekin batera gaien zerrenda eta behar den dokumentazio guztia ematea.

c) Batzarraren bileretan parte hartzea, bilera bakoitzaren akta idatzi eta erregistratzea eta harturiko erabakien fede ematea.

d) Idazkari izateak berez dakarzkion gainerako eginkizun guztiak.

2. Idazkariak hitza izango du, bana ez botorik.

f) Velar por el cumplimiento de la legislación vigente en el ámbito de su competencia, así como por los principios de sostenibilidad.

g) Garantizar el acceso a la información y participación de todos los miembros del Consejo.

h) Transmitir al órgano que tenga asignadas las competencias en materia de vías ciclistas y en concreto, al responsable de los servicios técnicos de vías ciclistas, los acuerdos, recomendaciones, peticiones y actuaciones aprobadas por el Pleno del Consejo.

i) Garantizar su presencia en todos los plenos del Consejo a través de su persona o mediante la delegación de sus funciones en el miembro titular de la vicepresidencia.

j) Ostentar el voto de calidad, decidiendo mediante el mismo en caso de empate.

k) Solicitar la asistencia técnica de carácter externo que considere oportuno.

Artículo 12. Funciones del Pleno del Consejo.

El Pleno se erige como máximo órgano decisorio del Consejo de la Bicicleta de Gipuzkoa y por consiguiente, a él le corresponden las siguientes funciones:

a) Establecer el programa de trabajo del Consejo priorizando las actuaciones a desarrollar.

b) Garantizar la información fluida con el departamento foral competente en materia de vías ciclistas y asesorarle en el marco de sus competencias.

c) Mantenerse informado y conocer de cuantos documentos, informes, estudios, directrices y líneas de actuación tengan que ver con el desempeño de sus funciones.

d) Solicitar cuanta información estime pertinente para el buen desempeño de sus funciones.

e) Solicitar la presencia de expertos o personas de reconocido prestigio, tanto en el pleno, como en las comisiones de trabajo, a fin de recabar la mejor información.

f) Pronunciarse sobre cuantas cuestiones le sean planteadas.

g) Acordar la creación de comisiones de trabajo o informativas para el tratamiento de cuestiones específicas, atendiendo a la composición que estime oportuna, siempre en el ámbito de su competencia y posibilitando, a su vez, la inclusión en las mismas de aquellos grupos, asociaciones o personas que por su especial trayectoria y vinculación con los temas a tratar contribuyan a la calidad del trabajo.

Artículo 13. Funciones del Secretario o Secretaria.

1. Bajo la dirección de la Presidencia al Secretario o Secretaria se le atribuyen las siguientes funciones:

a) Asesorar y asistir al Consejo.

b) Efectuar las convocatorias del Pleno, adjuntando a éstas el correspondiente orden del día y cuanta documentación sea oportuna.

c) Asistir a las sesiones del Pleno redactando las actas de cada sesión, registrándolas y dando fe de los acuerdos adoptados.

d) Desempeñar cuantas otras funciones le sean inherentes por su condición de Secretario o Secretaria.

2. El Secretario o Secretaria tendrá voz pero no voto.

14. artikulua. *Kontseiluko kideen eskubideak eta betebeharrak.*

1. Kontseiluko kideen eskubideak dira:
 - a) Kontseiluko Batzarrak harturiko erabakietatik ondorioztatzen diren jarduketei buruzko informazioa eskuratzea.
 - b) Aktak eta Kontseiluak sortu edo eskatutako dokumentazioa eskuratzea.
 - c) Kontseiluaren bileretan parte hartzea, hitza eta botoa izanik.
 - d) Foru erakundeko departamentuek eta beste administrazioek daukaten informazioa eskatzea Kontseiluaren bidez, baldin eta informazio hori beharrezkoa bada txostenak eta proposamenak egiteko.
 - e) Kontseiluaren ekimenak eta interesak aurkeztu, proposatu eta defendatzea.
 - f) Gai zerrendan sartu behar direla deritzon gaiak proposatzea.
 - g) Bi hizkuntza ofizialez baliatzea, bai idatziz bai hitzez.
2. Kontseiluko kideen betebeharrak dira:
 - b) Arautegi honetako xedapen guztiak betetzea.
 - c) Kontseiluak bultzatutako jardueretan parte hartu eta laguntzea, eta Kontseiluak harturiko konpromisoak bere egitea.
 - d) Kontseilua ordezkatzeko, Kontseiluak berak berariaz ordezkari izendatzen badu, eta ez ordezkatzeko, Kontseiluak ez badu ordezkari izendatu.
 - e) Kontseiluaren funtzionamendu egokirako garrantzitsua izan daitekeen edozein aldaketa jakinaraztea bizikleta bideen alorreko organo eskumendunari eta alor horretako zerbitzu teknikoei.
 - f) Kontseiluaren irudia eta lana indartu, bultzatu eta sustatzea Gipuzkoako gizartearen.

IV. KAPITULUA

FUNTZIONAMENDU ARAUAK

15. artikulua. *Quoruma.*

Kontseilua eratutzat joko da, lehendakaria eta idazkaria (edo dagozkien ordezkariak) eta bokalen erdiak gehi bat bertaratzaren direnean.

16. artikulua. *Bilerak.*

1. Bizikletaren Kontseiluak gutxienez bi bilera arrunt egingo ditu urtean, lehendakariak erabakitako egunetan. Bilera horiez gain, bere eginkizunak egoki betetzeko behar besteko bilera egin ditzake.
2. Bilera arrunta egiteko deia, bilera eguna baino lau egun lehenago bidaliko zaie kideei, eta 48 ordu lehenago, berriz, aparteko bilera egiteko deia.

Artículo 14. *Derechos y deberes de las personas integrantes del Consejo.*

1. Las personas que integran el Consejo ostentan los siguientes derechos:
 - a) Disponer de la información relativa a las actuaciones derivadas de cuantos acuerdos sean adoptados por el Pleno del Consejo.
 - b) Acceder a las actas y a la documentación generada o solicitada por el Consejo.
 - c) Participar, con voz y voto, en las sesiones del Consejo.
 - d) Solicitar, a través del Consejo, información que resida en los diversos departamentos de la institución foral u otras administraciones, y que resulten precisos para la elaboración de informes o propuestas.
 - e) Presentar, proponer y defender iniciativas e intereses del Consejo.
 - f) Proponer cuantas cuestiones considere relevantes a incluir en el siguiente orden del día.
 - g) Expresarse en las dos lenguas oficiales, tanto por escrito como verbalmente.
2. Son deberes de las personas integrantes del Consejo:
 - a) Cumplir expresamente las disposiciones recogidas en el presente reglamento.
 - b) Participar y colaborar en cuantas actividades sean promovidas por el Consejo, asumiendo los compromisos adoptados en el seno del mismo.
 - c) Representar al Consejo por designación expresa del mismo, eludiendo hacerlo en caso contrario.
 - d) Comunicar al órgano competente en materia de vías ciclistas y al responsable de los servicios técnicos de la referida área, cualquier cambio que pudiera ser relevante para la buena marcha del Consejo.
 - e) Favorecer, impulsar y promover la figura del Consejo y su labor en la sociedad guipuzcoana.

CAPITULO IV

REGIMEN Y FUNCIONAMIENTO

Artículo 15. *Quórum.*

Se considerará constituido el Consejo cuando se hallen presentes el Presidente o Presidenta y el Secretario o Secretaria, o quienes les sustituyan, y la mitad más uno de los vocales.

Artículo 16. *Las sesiones.*

1. El Consejo de la Bicicleta se reunirá en un mínimo de dos sesiones anuales, además de todas aquellas veces que se estime conveniente para la buena marcha de sus funciones, en sesión ordinaria cuando así lo determine su Presidente o Presidenta.
2. Las convocatorias de las sesiones ordinarias serán cursadas a las personas integrantes con cuatro días de antelación, mientras que las convocatorias de las sesiones extraordinarias se cursarán con una antelación de 48 horas.

17. artikulua. Barne arauak.

Arautegi honetako xedapenen aurka jo gabe, Kontseiluaren Batzarrak ahaliko du bere funtzionamendu arauak erabaki, bere lan eta informazio batzordeak eratu eta batzorde horien funtzionamendu arauak ezarri.

18. artikulua. Lan batzordeak.

1. Aurreko artikuluan xedatutakoa betez, Kontseiluak bere lan batzordeak eratu ditzake, Batzarrak hori egitea erabakitzen badu, ezarrita dauden helburuak lortzen lagundu dezaketen gai jakinak lantzeko. Batzordeek egiten duten lanaren berri izango du une oro Kontseiluaren Batzarrak.

2. Batzordeek zer funtzionamendu eta zer osaera izango duten Kontseiluaren Batzarrak erabakiko du.

3. Lan batzordeek, informazio beharra asetzeko, laguntza eska diezaiekete kasuan kasuko gaiaren inguruan ibilbide eta lotura berezia erakutsi duten eta eginbeharraren kalitatea hobetzen lagundu dezaketen taldeei, elkartei eta pertsoneri.

19. artikulua. Informazio batzordeak.

Informazio batzordeak ere eratu ditzake Gipuzkoako Bizikletaren Kontseiluak, Kontseilukoak ez diren administrazio publiko, erakunde eta taldeekin Kontseiluaren eskumeneko gaiak buruz aritzeko. Horretarako, lehendakariari eskaera egin behar zaio astebeteko lehenago, eskatutakoa gai zerrendan sartzea haren erabakia baita.

20. artikulua. Botazioa.

1. Erabakiak, bileran dauden kideen gehiengo soilaz hartuko dira.

2. Botazioaren emaitza berdinketa denean, bigarren botazioa egingo da, eta bigarren botazioan berdinketak jarraitzen badu, lehendakariaren kalitateko botoak erabakiko du.

3. Botazio arrunta egingo da beti, Kontseiluaren Batzarrak gaiaren berezitasunarengatik edo testuinguruarengatik isilpekoa edo izenduna izatea erabakitzen duenean izan ezik.

4. Botoa ezin da ez besterendu ez eskuordetu, eta aldeko botoa, kontrakoa eta abstentzioa dira bilerakoek dauzkaten boto aukerak.

5. Botoa kontaketa egin eta emaitza jakinarazteaz arduratuko da idazkaria, eta botazioaren emaitza aldarrikatzeaz, berriz, lehendakaria.

Amaierako xedapena.

Foru dekretu hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egun berean jarriko da indarrean.

Donostia-San Sebastián, 9 de setiembre de 2008.

DIPUTATU NAGUSIA,
Markel Olano Arrese.

GARAPEN IRAUNKORREKO
DEPARTAMENTUKO
FORU DIPUTATUA,
Carlos Ormazabal Urbizu.

(5523)

(10117)

Artículo 17. Normas internas.

Respetando las disposiciones contenidas en el presente reglamento, el Consejo en Pleno tendrá capacidad para establecer sus propias normas de funcionamiento, así como constituir sus propias comisiones de trabajo o informativas y su correspondiente régimen de funcionamiento.

Artículo 18. Comisiones de trabajo.

1. Atendiendo a lo dispuesto en el artículo anterior, el Consejo podrá constituir sus propias comisiones de trabajo cuando así lo acuerde el Pleno, para atender a cuestiones determinadas que favorezcan la consecución de los objetivos previamente establecidos. El Consejo en Pleno estará en todo momento informado de la labor desarrollada por las comisiones.

2. El funcionamiento y composición de las comisiones serán establecidas por el Pleno del Consejo.

3. Las comisiones de trabajo podrán solicitar a efectos informativos, la asistencia de cuantos grupos, asociaciones o personas de especial trayectoria y vinculación con el tema a tratar favorezcan la calidad del trabajo que en ese momento se esté desarrollando.

Artículo 19. Comisiones Informativas.

El Consejo de la Bicicleta de Gipuzkoa podrá constituir también comisiones informativas destinadas a atender a administraciones públicas, instancias y colectivos ajenos al Consejo, en relación a cuestiones de la competencia del mismo, siempre y cuando hayan elevado su solicitud a la Presidencia con una semana de antelación, quién resolverá sobre su inclusión en el orden del día.

Artículo 20. Votación.

1. Los acuerdos serán adoptados por mayoría simple de las personas integrantes que se encuentren presentes.

2. Cuando como resultado de la votación se produzca un empate, se realizará una segunda votación y en caso de subsistir el empate, será el voto de calidad de la Presidencia el que resuelva.

3. La votación será ordinaria, excepto cuando el Pleno del Consejo estime, por la particularidad de la materia o coyuntura, que la misma sea secreta o nominal.

4. El voto, que no es transferible ni delegable, podrá ser afirmativo, negativo o reflejar la abstención de las personas integrantes.

5. El Secretario o Secretaria será la persona responsable de efectuar el recuento y anunciar el resultado, mientras que el Presidente o Presidenta se encargará de proclamar el resultado de la votación.

Disposición final.

El presente Decreto Foral entrará en vigor el mismo día de su publicación en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.

Donostia-San Sebastián, 9 de setiembre de 2008.

EL DIPUTADO GENERAL,
Markel Olano Arrese.

EL DIPUTADO FORAL
DEL DEPARTAMENTO DE
DESARROLLO SOSTENIBLE,
Carlos Ormazabal Urbizu.

(5523)

(10117)